

KUDEAKETA AURRERATUA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

INNOBIDEAK- KUDEABIDE

- **Deskribapena/Helburua:** Kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, kudeaketa aurreratuaren ereduarekin bat datozenak eta Arabako enpresen lehiakortasuna hobetzen dutenak.
- **Onuradunak:** 5 langile eta 50 langile baino gutxiago artean dituzten Arabako enpresak, baldin eta Euskalitek egindako hasierako kontrasteko txostena indarrean badaukate eta kudeaketa aurreratuako ekintza plan zehaztu bat aurkezten badute. Ekintza plan horretan kontrastean identifikaturiko hobekuntza arloetako kudeaketa finkatzeko proiekturen bat jaso beharko da.

Horrez gain, erakunde onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban edukitzea edo lurraldean gutxienez ekoizpen edo zerbitzu zentro bat edukitzea.
- Jarduera ekonomikoen zergaren epigrafe hauetakoren batean jarduera ekonomikoak egitea: Enpresa jarduerak: 1, 2, 3, 4, 504, 62,69, 7, 84 eta 9 taldeak.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 100.000,00 €2024ko ekitaldirako eta 50.000,00 €2025eko konpromiso-krediturako.
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko martxoa
- **Laguntzaren antolaera:** Lehia askea
- **Arduraduna:** Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua
- **Harremanetarako:** Amagoia Zubillaga: kudeabide@araba.eus. Tel.: 945181818 (Luzapena: 52352).
- **Informazio gehiago:** <https://egoitza.araba.eus/eu/-/kudeabide-programa>

FAST TRACK INNOBIDEAK

- **Deskribapena/Helburua:** Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan dauden espezializazio-eremuetan berrikuntza proiektuak egiteko eta/edo berrikuntza bultzatzeko funtsezko ekintza osagarriak burutzeko laguntza.
- **Berrikuntza-proiektuak:**
 - TRL altuetako garapena (TRL 7-9) produktu eta ekoizte-prozesurako.
 - Teknologien txertatzea produktu eta ekoizte-prozesurako.
 - Metodologiaren txertatzea produktu eta ekoizte-prozesurako.
 - Negozio-eremuan.
- **Funtsezko ekintza osagarria:** Kudeaketa aurreratua KUDEABIDE.
- **Onuradunak:** Euskal Autonomia Erkidegoko ETE Industrial eta produktu/prozesu industrialari lotutako zerbitzuak. Kudeabide funtsezko ekintza osagarrian enpresak gutxienez 50 enpleguko plantilla izan behar du, batez beste.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 7.700.000 €
- **Argitaratzeko aurreikusten den data:** 2024ko martxoa
- **Laguntzaren antolera:** Norgehiagoka-prozedura
- **Zuzendaritza arduraduna:** Teknologia eta Berrikuntza SPRI taldearen laguntzarekin batera
- **Harremanetarako:** Josu Ocariz: jocariz@spri.eus. Tel. 944037011
- **Informazio gehiago:** www.spri.eus/innobideak/